

«Jolasteko aukera izan dut filmean, narrazio klasikoa eta surrealismoa ezkonduz»

Aupa Etxebeste!, Txotx edota Bertsolari pelikulen egileak Amama du azken lana, urte askoan landutako gidoiaren emaitza. Gertutik ezagutzen duen baserri mundua, haren gainbehera eta hiritartutako belaunaldi gazteekiko haustura jorratu ditu Asier Altuna Izak (Bergara, 1969). Dagoeneko zigilu pertsonal bihurtu duen ukitu surrealista eta sinbolikoari tartea egin dio proiektu honetan ere.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkia: Dani Blanco

Baserri munduaren amaiera bizi dugu?

Azken gizaldietan ikusi dugun baserri mundu tradizionalarena bai, nabarmen. Haustura eman da belaunaldiotan, baina mundu hori eraldatu egingo da. Bizitzeko, izateko eta pentsatzeko modu bati omenaldi txiki bat egin nahi izan diot batetik, beti izan dudalako horretarako gogoia, eta horrez gain adierazi nahi izan dut haustura egon arren (eta normala da, gauza onak eta txarrak dituelako mundu horrek), ondare eta jakituria horren transmisioa ez dela eten. Pelikulan zehazki, amamaren eta bilobaren bitartez. Mundu baten amaieratik sortuko da berri bat.

Baserriaren eta hiriaren arteko talka horretan, nola aurkitu oreka, iraganean iltzatu gabe, baina hari uko egin gabe?

Aurrera eginez, baina atzera ere begiratu. Amaiak esaterako, pelikulako protagonistak, artea erabiltzen du horretarako. Haustura ez da soilik fisikoa, baserria fisikoa da, baina munduan kokatzeko modua ere aldatu da, zentroa non jartzen dugun. Tomas [Amaiaren aita] baserriar peto-petoa da, baserriak ematen dio babes, ekonomikoa eta espirituala, familiari garrantzi handia ematen dio... Amaiak ere sentimendu horiek baditu (babes sentimendu hori, komunitatearen zentzua...) eta pentsa daiteke hainbeste urtez baserrian jorratutako balore horiek hirian mantenduko dituela, modu batera edo bestera. Transmisio kate horrek jarraipena izango duela.

“Amama gure memoria da”. Pertsonaia boteretsua, amama.

Orain dela 80 amama Neolitikokoan bizi ginela dioen Oteizaren esaldiak ezinegon handia sortu dit beti, baina modu batera edo bestera lasaitu ere egiten nau. 5.000 urte asko dira, gauza asko gertatu dira, baina aldi berean, 80 amama ez dira hainbeste; hori da nire irakurketa. Pelikulan ere, arbaso horien guztien arima sinbolizatzen du nolabait, misterio handia transmititzen du, susmoa...

“Baserri munduarekiko haustura eman da, baina ondare eta jakituria horren transmisioa ez da eten. Pelikulan zehazki, amamaren eta bilobaren bitartez”

Pertsonaia nagusiak Tomas (Kandido Uranga) eta haren alaba Amaia (Iraia Elias) dira, mundua ikusteko bi modu.

Pelikularen pisua dramate, aktoralki bakarrik ez, baita filmaren egiturari begira ere: hasiera Amaiaren ikuspuntutik dago kontatuta eta narrazio

koloretsua da, estetikoki polita, sortzailea, musika askorekin... Gero, aitarekin apurtzen duen unetik, Tomasen ikuspuntura igarotzen gara eta planoak finkoagoak dira, erritmoa geldoagoa da, kasik ez dago hitzik, isiltasuna da nagusi... Gidoia idazten ari nintzela akto-reetako bi argi neuzkan: Kandido Uranga eta Klara Badiola [Isabel, Tomasen emaztea]. Kandidok daukan presentzia, bere ahotsa... Askok miresten duen aktorea da, pertsonaia hau antzezteko ezin hobea. Iraia berriz, senak eramanda hautatu nuen. Pelikula egiten noan heinean erabakiak hartzeko libre sentitzea gustatzen zait eta antzezlan batean ikusi nuen



Iraiak, pertsonaiarako fisiko egokia izateaz gain, oholta gainean indar handia duela, pelikularako primerakoa zela.

Baserriak imajinario oso bat dakarkigu gogora. Zinematografikoki ere potentea da baserria.

Naturaren erdian egon ohi da baserria eta naturak berez du estetika eta dramatismo izugarria. Natura behatzen eta naturaren aldaketak islatzen saiatu gara: uztailean errodatu genuen lehenengo eta udazkenean gero, baso, baratze eta arbolen aldaketa erakusteko. Baserriak berak konta dezake asko edo ezer ez, egungo baserri ugari ez duelako ezer kontatzen, baina filmerako hautatu genuenak bai: Errezilgo Eitzeta baserria. Teilatua ez dauka aldatuta eta testura berezia du, berdin paretek, atek... Oholen zirrikitu horiek guztiak gai dira irudi bakar batekin dena kontatzeko; kamera ipintzen genuen lekuan ipinita, beti zeukan zer kontatua, begirada bakarrean transmititzen dizu baserri handi eta eder izandakoa, bertakoek alde egiten dutenean, jausi egingo dela, edo beste zerbait bihurtuko. Hiria gutxiago agertzen da filmean, baina hiriko hainbat planok naturaren irudiarekin egiten duten kontrastea polita da.

Oteiza aipatu duzu. Zein erreferentzia izan dituzu, iruditeria hau osatzeko garaian?

[Julio Medemen] *Behiak* pelikula izugarri gustatzen zait, baita Bixente Ameztoiren surrealismo etnografikoa, nolabait esatearren. Oteizak 80 amamen esaldia eman dit, eta Kirmen Uriberen poema batetik abiatu nuen trama, aita eta alabaren arteko inkomunikazioa oso modu poetiko eta sinplean azaltzen duelako. Irudiek iradokitzen zizkidaten bestelako ukituak ere badaude, Sarrionandiaren abesti bat... Ez modu nabarmenean, baina detaileak. Detalle txiki baten bidez dena kontatzea ederra da.

Baserri mundu tradizionala aurretik ere irudikatu izan duzu, hala nola *Txotx* edo *40 ezetz* laburretan. Beti ere, ikuspegi topiko-erromantikotik urrundu eta hankaz gora jartzeko.

Pelikula honetan denetik dago.

Belarretako sekuentzia ederrek esaterako haurtzarora naramate, baina dena ez da egutegiatako irudi bukolikoa, eta nire imajinarioa batez ere oso surrealista izan da beti, pozik nago filmean surrealismo hori sartzea lortu dudalako.

Surrealismoa, sinbolismoa... narrazio tradizionalarekin uztartu duzu, kontatzeko modu indartsuagoa delako?

Niretzat zinema egitea jolasa ere bada eta libre sentitzen naiz. Pelikula txukun eta indartsua egin nahi izan dut, ikuslea harrapatzeko. Eta jolasteko espazio libreak mantendu nahi izan ditut, pantailan harrituko zaituen zerbait irudikatzen duten pelikulak direlako gehien maite ditudanak. Irudi hori gai izatea pelikula bat gogora ekartzeko, gauza handia da. Nik hori bilatzen dut, modu oso kontzientean ez

bada ere. "Irudi hau sartu egin behar dut" sentitzen dut, indar bat hauteman dudalako, sarri taldea kontra badut ere, esperimendu horiek ez direlako beti ongi etorriak. Defentsibarako pelikulak egiten dira gaur egun, segurutik jotzen da eta halako irudiak planteatzea ez da erraza, baina ni eroso

sentitzen naiz esperimentazio eremu horretan. Gainera, nahi dudana zinema egiteko espazio libre hori aurkitu dut eta barrutik atera zai-gun pelikula egin dugu, beldur barik, intuizioz. Alde horretatik, filma muntatzea luxua izan da, ondo pasatzeko eta jolasteko aukera, narrazio klasikoa eta surrealismoa ezkonduz.

"Ikusten ez dena, azpittestua, da zinemaren magia, irudiekin beste zerbait kontatzea". Hala adierazi zenidaten elkarrizketa batean Telmo Esnalek eta zuk.

Sekuentzia baten atzean dagoen mezua, esplizituki kontatzen ez dena da inportantea, baina hori gehienbat gidoian finkatu behar da eta zaila da antzematea. Ni gidoia aldatzen joan naiz, dialogoak kenduz eta hitzen ordeztu hori bera irudi edo begirada bidez kontatzeko helburuz. Eta hori lortzen baduzu, plazer izugarria da, pelikula askoz ederragoa eta poetikoagoa geratzen da, unibertsalagoa. Istorioa ulertzeko eta jarraitzeko dialogorik behar ez duen pelikula zoragarria da. Baina hori lortzea da zailena.

2011ko elkarrizketa hartan beste zerbait ere komentatu zenidan: asko kostatuko litzazukeela umoretsua ez den film bat egitea.

A bai? Kar, kar, kar... Ba orduan zahartu egin naiz. Faseak daude, eta egia da pelikula hau hastapenetan komedia bat zela, baina une

honetan gaiari modu intimoagoan, sentiberagoan heldu nahi izan diot. Oso gustura sentitu naiz istorio hau horrela kontatzen. Eta tira, gehiago ez dut esango horrelakorik, "halako ez dut egingo", ezin delako jakin, eta gauza berrietara zabalik egotea hobe delako. Orain-txe bertan behintzat jarrera hori daukat, gauza berriak egiteko gogoia, eta hurrengo pelikula oso ezberdina egitea gustatuko litzaidake.

"Nire imajinarioa oso surrealista izan da beti. Pantailan harrituko zaituen zerbait irudikatzen duten pelikulak maite ditut gehien"

"Orain dela 80 amama Neolitikoa bizi ginela dioen Oteizaren esaldiak ezinegon handia sortzen dit. 5.000 urte asko dira, baina 80 amama ez dira hainbeste"



Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialen lehiatuko da *Amama*. Iaz hori bera lortu zuen Jon Garaño eta Jose Mari Goenagaren *Loreak* filmarekin konparaketak saihestezinak izango dira?

Saihestezina da dagoeneko, elkarrizketa gutzietan galdetzen didate-eta. *Loreak* moduko aurrekaria izatea ona da, konplexurik gabe joateko Zinemaldira: guk ez daukagu konplexurik, ahalik eta zinemarik onena egiten saiatzen gara; baina beste batzuek badituzte, eta iaz ikusi genuen. Euskal film bat lehiatzen aritzea Donostiako Zinemaldiak hemengo zinemari ordaindu beharreko bidesaria ez ote zen aipatzeraino. Gero, onarpen handia izan du *Loreak* pelikulak, baita hemendik kanpora ere, eta bigarrena izateak bidea erraztuko digu; ziurrenik, eurak erantzun behar izan zituztenak baino galdera gutxiago erantzun beharko ditut. Bestalde, luxua da Donostian lehiatzea, ez da erraza, ez da urtero gertatuko euskal pelikula bat Sail Ofizialean izatea, eta oso pozik nago.

Txintxua ekoiztetxea sortu zenuten 2008an. Proiektu pertsonalak egiteko aukera handiagoa ematen du horrek?

Bertsolari dokumentala egiteko sortu genuen ekoiztetxea, prozesu guztia guk kontrolatu nahi genuelako hasieratik bukaerara eta batez ere ekoiztetxe bat atzean ez baduzu ezin duzulako pelikularik egin Euskal Herrian, fiskaltate kontuetarako, finantzazio akordioetarako, eta abar. Marian Fernandez da produkzio lanetan gehien aritzen dena eta estilo berezia ematen die pelikulei, segurtasuna ematen digu, zuzendariak urruti joaten garenean jaisten laguntzen digulako. Modu xumean aritzea da gure filosofia, txikitasun horretan produktua asko zainduz eta pelikula txukunak egin nahian, beharretara egokituak: ez oso zaratatsuak, baina gure marka eta estiloa daramatenak. Eta lagunartean eginak, ger-

Altunarentzat, "pelikula hau oso pertsonala da, giro hori arnastu dudalako, oso nire mundua delako; haurtzaroa dakarkit gogora".

tuko lantaldearekin. Etxeko jakien antzera, su txikian eta mimoz.

Zure pelikuletako asko Telmo Esnalekin batera zuzendu dituzu. Alde onak eta txarrak izango ditu bakarrik aritzeak.

Alde onak, erronka baten aurrean bakarrik egotea ederra dela, hori ere bizi behar dela. Pelikula hau, gainera, oso pertsonala da niretzat, giro hori arnastu dudalako nire bizitzaren parte inportante batean, oso nire mundua delako; haurtzaroa dakarkit gogora. Eta txarrak, Telmo alboan izatea sekulakoa dela, asko ikasten duzu, barre egiten duzu, segurtasuna ematen dizu... eta pelikula partekatzea ere gauza handia da.

Esnalekin batera zuzendu zenuen *Aupa Etxebeste!* (2005) eta mugarri izan zen euskal zinema. Asko aldatu dira eta aldatu zaizkizu gauzak orduetik?

Zinema egiten jarraitzen dugu, hori da inportanteena, heldutasun maila bat hartu dugu eta *Aupa Etxebeste!* egin zuen lantaldeak ere heldutasuna lortu du: gaur egun hemen dauzkagun teknikariek duten lan gaitasuna izugarria da eta lagunarteko giroa arnasten da, familia giroa, eta azken emaitzan igartzen da hori, jendeak kariñoz egiten duela lan, proiektuetan dena emanez. Finantzazioan, beste fase batera pasatzeko garaia da. *Aupa Etxebeste*tik hamar urte igaro dira eta berdin nago, hurrengo pelikula ateratzea zenbat kostatuko zaidan jakin gabe. Proposamen oso potenteak dituen jendea dago, proiektua ezin aurrera atera, eta pena ematen dit; Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak jarrera aldatu beharko luke, Frantzia ematen dituzten erraztasunen antzera emateraino. ETB aliatu handia da, baina administrazioak ere esku hartzea falta da, ez gaitetzen egon beti Espainiara begira. Eta oso diru kopuru txikiak ari naiz, jarrera aldatzea da kontua. ■